BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5217

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, erantzuna bidaltzeko eta prozeduran interesdun direnak epatzeko dena.

M.ª Asun Sarrionandia andreari ezin izan zaio jakinarazi 2012ko ekainaren 29ko eskabide-idazkiari emandako erantzuna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan ezartzen den moduan jakinarazten zaio hori, iragarki hau argitaratuz. Horren bidez, M.ª Asun Sarrionandia andreari dei egiten zaio Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian ager dadin erantzun hori jasotzera, iragarki hau argitaratzen denetik, gehienez ere, hamabost eguneko epean, 08:30etik 14:00etara bitartean.

M.ª Asun Sarrionandiari jakinarazpena egiteko ematen da hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.